

195. zenbakia

Azpeitian zer?

Udal aldizkaria



**Autismoa duten
pertonentzako
zerbitzuak, herrian**



Telefono interesgarriak

Zentralita	943 15 72 00
Hirigintza	943 15 71 91
Gizarte Zerbitzuak	943 15 71 92
Kultura	943 15 70 68
Kirolak	943 15 00 95
Parekidetasuna	943 15 79 28
Emakumeen Txokoa	943 15 70 55
Iturritxiki Ludoteka	943 15 11 79
Txiki-Txoko Ludoteka	943 15 05 16
Gazte Informazio Bulegoa (GIB)	943 15 71 60
Eguneko Zentroa	943 15 74 96
Liburutegia	943 15 71 95
Udaltzainak	943 15 13 13
Igerilekua	943 81 41 21
Kiroldegia	943 81 30 69
Udal Euskaltegia	943 81 19 47



Ale honetan zer?

Azpeitia, aniztasunetik	3
Formazioa	6
Gautena	8
Sos arrazakeria	12
Gipuzkoako Minbiziaren aurkako elkartea....	13
Etxe tutelatuak	14

Azpeititik kanpo bizi arren, zure etxean jaso dezakezu
Azpeitian Zer? aldizkari hau posta bidez. Egin eskaria
943 15 71 85 (Alkatetza) telefonoan.

Argitaratzailea: Azpeitiko Udala · Egilea: Prentsa bulegoa
Argazkiak: Azpeitiko Udala · Diseinua: Sorland
Maketazioa eta testuak:
Ale kopurua: 7.000 · L.G: SS - 1148/91

Herritarren Arreta Zerbitzua



Azpeitiko Udaleko lehen solairuan aurkitzen da Herritarren Arreta Zerbitzua. Dokumentuen erregistroa, errolda agiria atera, eskaera orokorrak zein lizentzia eskaerak edo kontsultak egiten dira bertan. Uztail eta abuztuan, 07:30etatik 14:30era bitartean izaten da zabalik astelehenetik ostiralera bitartean. Neguko ordutegian, berriz, ostegunetan 07:30etik 19:00etara izaten da herritarrentzat zabalik.



Azpeitia, aniztasunetik

Munduko hainbat txokotatik Azpeitira etorritako herritarrei ahalik eta laguntza eta zerbitzu integralena eskaintzeko asmoz, Aniztasun teknikaria du urte hasieratik udalak

Azken hamarkadan, asko aldatu da gizartea, eta asko aldatu da Azpeitia. Aniztasunean ere asko irabazi dute herriek. Munduko hainbat txokotatik Azpeitira etorri diren herritarrek asko aberastu dute herria, baina aukerekin batera erronka berriak azaleratu dira azken urteotan. Denontzako Azpeitia eraikitzeko bide horretan, aukera asko sortu dira eta beharrak ere bai.

Migratzaileen aniztasuna eta beharrak modu integralago batean artatzeko asmoz, urtearen hasieratik Nagore Arroita Aniztasun teknikaria ari da lanean Azpeitiko Udalean. Teknikari berri honekin, baliabideak optimizatzeaz gain, aniztasunaren inguruko proiektu berriak abian jartzea da helburua: "Atzerritar eta migratzaileei eskaintzen dizkiogun zerbitzuak eta baliabideak optimizatu eta integraziorako bide eta erronka berriak gauzatzeko helbururarekin hasi da lanean aniztasun teknikaria",

adierazi du Leire Goenaga Gizarte Zerbitzuetako batzordeburuak.

Azpeitia 2030 Plan estrategikoaren baitan egindako diagnostikoaren arabera, urtez urte hazten ari da etorkin kopurue eta arreta emateko neurriak hartu beharra nabarmentzen du. Bide horretan, arlo horretako erronka nagusi bezala zehazten ditu integrazio eta harrera plana garatzea, aniztasuna kudeatzeko lanpostua sortzeak etorkinen etorreran izandako hazkunde azkarrari erantzuteko, eskara etorkinen integraziorako mekanismoa izanik plan bat eratu kolektibo horiek euskararen ikaskuntzara eta erabilerara erakartzeko eta kultura eta kirola integraziorako baliabide aproposak izanik alor horiek uztartzen dituen begirada eta planteamendu espezifiko bat garatzea.

Aniztasun teknikariaren bidez, gaur egungo beharrei erantzuteaz gain, etorkizuneko erronkei gaurtik erantzuteko proiektuak garatzea da helburua. Hala, dagoneko Arroita buru belarri dabil eguneroko lanean, zein etorkizunekoetan pentsatzen. "Gaur egun, Gizarte Zerbitzuetara datozen etorkinak artatzen ditut, hala, beraien berri dut egunerokoan. Horretaz gain, ordea, proiektu komunitarioen bidez,



integrazioa laguntzeko edo errazteko moduak aurkitzea da erronka nagusia”, adierazi du.

Bide horretan, maiatzean, abokatu batek atzerriartasun arautegiari buruzko kontu orokorren inguruko xehetasunak azaltzeko hitzaldia antolatu zen. Hitzaldi horretan, besteak beste, egoitza-baimena, lan eta bizitze-baimenak, epe luzeko baimena, baimen horien berritzea, familia elkartaratze-baimenak eta Europar Batasunaren atzerriartasun modu erkidegoa azaldu ziren. Herritarren artean izandako harrera ikusirik, udazkenean beste hitzaldi bat antolatzeko lanean ari dira. Oraingoan, etorkinei zuzendurikoa izan beharrean, herritar guztientzat irekia izatea da helburua.

“Migratzaileei eskaintzen dizkiegun zerbitzuak optimizatzea eta integratziorako bide eta erronka berriak gauzatzea da helburua”

Nagore Arroita



PROIEKTU KOMUNITARIOAK HELBURU

Etorkin guztiak askotan kolektibo berean sartzen badira ere, jatorriaren arabera, integraziorako arazo eta behar ezberdinak izan ohi dituzte. Baina integrazioa bera ez da erraza izaten orohar. Bide horretan, proiektu komunitario bat garatzeko lanean ari da Azpeitiko Udala. Oraindik erronka bat bada ere, euskara integraziorako tresna garrantzitsua denez herrian, hizkuntzaren inguruko proiektu baten inguruan ari da lanean. Hala, hizkuntza ikasi edo praktikatzeaz gain, elkar ezagutza bultzatuko du proiektuak.


DATUAK

2020an, Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo jaiotako 2.338 biztanle zituen Azpeitiak, eta atzerritarren ehunekoa % 9,5ekoa zen Azpeitian, Gipuzkoan % 11koa izan zen bitartean. Ehuneko hori igoz joan da azken hamarkadan, %6koa izan baitzen 2010. urtean.

Nazionalitate-taldeen arabera, Afrika iparraldea-Magrebekoak dira % 32,3a, Europar Batasunekoak % 19, Latinoamerikarrak % 22,3, Asia % 14,9, Europako beste herrialde batzuetakoak % 3a eta Afrikako beste herrialde batzuetakoak % 2,7a.

Migratzaile atzerritarren artean gehiago dira gizonak (% 55) emakumeak (% 45) baino.

ATZERITARREN EHUNEKOAREN BILAKAERA. UDALERRIKO BIZTANLERIAREN GAINEKO %-A





Formazioa, herritarren bizi kalitatean eragiteko

Zabaltzen-Sartu kooperatiba Elkarteak eta Azpeitiko Udalak sinatutako hitzarmenaren bidez, 2024. urtera bitartean enplegarritasuna eta laneratzea helburu duen prestakuntza eskainiko da Basazabal Formazio Zentroan.

Azken urteotan esfortzu eta baliabide ugari jartzen ari da Azpeitiko Udala formaziorako. Hainbat unibertsitate eta elkarterekin hitzarmenak beren formazio eskaintza Azpeitian eskaintzeko egiteaz gain, Basazabal formaziorako zentroa ere bilakatu du.

Formazioa herritarrei etorkizun hobeago bat eskaini eta langabeziari aurre egiteko etorkizunerako inber-

tsio gisa ulertzen du udalak. Eta, eskaintza zabala egin ohi du urtero.

Bide horretan, eskaintza hori sendotzeko Zabaltzen-Sartu kooperatiba elkartearekin hitzarmena sinatu du Udalak enplegarritasuna eta laneratzea helburu duen prestakuntza eskaintzeko, eta azken hilabeteotan, hainbat ikastaro eskaini dituzte Basazabalen.

Azpeitiko Udalaren Plan Estrategikoaren baitan, enplegurako eskubide aktiboa babesten du funtsezko ardatz gisa, eta hezkuntza, prestakuntza eta etengabeko ikaskuntza bermatu beharra zehazten du herritarrentzat eta bereziki kolektibo zaugarrientzat. Ahultasun egoeran dauden herritarrek eta

sustengu premia duten gainerako kolektiboek enplegura igarotzeko aukera izan dezaten, baliabideak bultzatzeko konpromisoaren baitan eskaintzen jarri da abian eskaintza berria.

Hitzarmenean jasotako prestakuntza aukera ezberdinen bidez, bertan parte hartuko duten herritarrek, beren garapen pertsonala ez ezik, gizarteratzeko eta laneratzeko aukera izango dute.

OINARRIZKO IKASKETAK

Basazabal Formazio Zentroko bigarren eta hirugarren solairuko geletan eskaintzen ditu bere ikastaroak Zabaltzen-Sartuk. Bertan, batez ere, Arreta soziosanitarioko profesionaltasun agiria ateratzeko helburua duten, baina horretarako oinarrizko jakintza edo ikasketarik ez duten pertsonentzat saioak eskaintzen dituzte. Horen bidez, egin nahi duten formazio eskaintza horretarako sarbidea izan dezaten.

“Zaintza lanetan ari direnei formazio homologatua eskaintzea garrantzitsua da guretzat. Bide horretan, lanbide hori duindu eta lan baldintzak hobetzeko aukera eskaintzen zaielako arlo horretako langileei”, adierazi du Leire Goenaga Gizarte Zerbitzueta batzordeburuak. Sektore feminizatua dela ere azpimarratu nahi izan du: “Azpeitian emakume langabe-tuen portzentaia gizonezkoena baino altuagoa da, eta orokorrean, diru sarrerak ere baxuagoak izan ohi dira. Formazioa eskainiz, parte hartzaileei bizi kalitate hobegorako aukera eskaini nahi diegu”.

17 ikasle

Azken ikasturtean, Arreta Soziosanitarioa Profesionaltasun Ziurtagiria ateratzeko formazioa 17 ikaslek jaso dute. Alde teorikoa gaindituta, praktikak egiten ari dira guztiak.

ARRETA SOZIOSANITARIOKO PROFESIONAL-TASUN AGIRIA

Duela hainbat urtetatik Azpeitiko Udalak zaintza lanetan aritzen diren herritarrek profesionaltasun agiriaren beharra zutela jakitun, herrian bertan formazio eskeintza egiteko erabakia hartu zuen. Horrela, azken urteotan, urtero, talde batk profesionaltasun agiria ateratzeko oinarrizko ikasketak eta praktikak egiteko aukera izan dute. Iaztik, gainera, lan egiten duten zailtzaileek formazioa hobeto jarraitzeko berain ordutegira egokitu zen. Hala, astean ordu gutxiago sartzen dituzte, eta zertxobait luzeagoa da ikastaroa. Azken ikasturtean, 17 lagunek egin dute, eta guztiek gaindutu dute ikastaroaren alde teorikoa. Orain, praktikak egiten ari dira.

Formazioa herritarrei etorkizun hobeago bat eskaini eta langabeziari aurre egiteko inbertsio gisa ulertzen du udalak.



Autismoa duten pertsonentzako zerbitzuak eskaintzeko Gautenaren zentroa ireki da

Gautenak eguneko zentroa eta etxebizitza guztiak Donostia inguruan izan ditu orain artean. Ekainetik zerbitzu horiek Azpeitian ere eskainiko ditu eskualdeko autismoaren espektro nahasmena duten pertsonentzat.

Autismoaren espektroko nahastea duten pertsonentzako zentroa du abian du Azpeitiak ekainaren 21etik. Autismoaren mundua zabala izanagatik, jaiotzen denetik hil arteko garapen nahastea da, hau da, bizitza guztirako da. Nahasmen mota hori duten pertsonak, zailtasunak izan ohi dituzte bestekin harremanetarako, hitz egiteko, emozioak identifikatzeko eta atzerapen intelektuala ere izan dezakete. Horregatik, ezinbestekoa dute laguntza profesionala, psikologo, psikopedagogo eta logopedenena. Beraien gaitasunetik abiatu eta estimulazio kognitiboaren bitartez garatzen joateko.

Azpeitiko Udala eta Gautena elkarteak, eskualdeko autismoa duten pertsonen eta beren familiei zerbitzua eskainiz beren bizi kalitatea hobetzeko helburuarekin 2018an hasi ziren elkarlanak. Hartu-eman horren ondorio edo emaitza da ireki berri den Olatzondo zentroa. Bertan, eguneko zentroa eta bi etxebizitza daude dagoeneko martxan. Zentroa Loiolabiden kokatuta dago eta Gautenak kudeatzen du. Lokalak Azpeitiko

Udalarenak dira eta eskumenak tarteko Gipuzkoako Foru Aldundiari lapanena egina dio, hark plazak Gautenarekin hitzartzeko.

Olatzondo zentroak 14 plaza ditu bi komunitate-etxebizitzetan eta beste 14 eguneko arretarako, Urola Erdiko autismoa duten pertsonen eta beren familien beharrei erantzuteko sortu da.

Azpeitiko zentroa irekitzearekin, Gautenak bere lehen zentroa zabaltzen du Urola Erdia eskualdean. Lehenengo zazpi pertsonak ekainaren 21ean joan ziren instalazio berrietan bizitzera, eta beste zazpiak uztailearen 5ean sartu dira, modu mailakatuan, sarrera-prozesua eta ingurune berrira egokitzea errazteko. Olatzondo zentroa Azpeitiko Loiolabide auzoan dago, kalean bertan, komunitatearekiko lotura indartzeko eta egunero jardueretan parte hartzea eta inplikatzeko errazteko.

Nagore Alkorta Azpeitiko alkateak, Gautenaren zerbitzuak herrian izatea "pauso garrantzitsua" dela

“Orain arteko harrera oso ona eta ederra izan da, denek esku zabalik hartu gaituzte, eta pixkanaka-pixkanaka herrian integratzen joango gara” Iñaki Garcia

nabarmendu nahi izan du. Zerbitzu berri hori herriko zein eskualdeko autismoa duten pertsonen zein beren familien bizi kalitatea hobetzeko baliabide publikoa izango da, herrian bertan eskainiko dena. “Behar sozialei erantzutea gure lehentasun garrantzitsuenetakoa da. Horren baitan, Gautenak eskainiko duten bezalako zerbitzua herrian bertan izatea poztekoa eta eskertzekoa da benetan. Zentro horren bidez, autismoaren espektro nahasmena duten pertsonen eta beren familien beharrei erantzun, eta bizi kalitatea hobetzea dugu helburu”, gaineratu du. Bide horretan, “denontzako Azpeitia eraikitze bidean, behar bereziak dituzten herritarrek eta familiak bertan zainduak izateko aukera eskaintzea garrantzitsua da guretzat”, azpimarratu du.

Horretaz gain, Azpeitian lanpostuak sortu direla ere nabarmendu du: “16 lanpostu sortu dira Gautenan zerbitzua emateko eta langileen erdiak baino gehiago eskualdekoak izango dira. Horrek ere garrantzia handia du udalarentzat”. Hala, gizarte beharrei erantzuteko azpiegitura eta zerbitzu gehiago eskaintzen dira Azpeitian Gautenaren bidez.

Maite Peña Gizarte Politikako Diputatuak nabarmendu nahi izan du Gautenak autismoaren nahasmena duten pertsonen alde egiten duen lana: “Gipuzkoan erreferente dira, prestigio handia dute eta autismoa duten pertsonekin eta haien familiekin egiten duten lan guztia bermatzen duen ibilbidea dute”.

Foru Aldundiko arduradunak gaineratu duenez, “autismoa duten pertsonen beharretara egokitutako zerbitzua da, familiei ere laguntzen diena, bizikidetzak-unitate txikietan banatuta dagoena eta komunitateari oso lotuta”.



Olatzondo zentroa posible izan da erakunde publikoen eta hiru garren sektore sozialaren arteko elkarlari esker, kasu honetan Gipuzkoako Foru Aldundia- ren, Azpeitiko Udalaren eta Gautenaren artekoa.

28 plaza berri horiek Gautenak jada Gipuzkoan kudeatzen dituen 200 plazei gehitu zaizkie; horietatik, 92 egoitza-arretakoak dira eta 136 eguneko zentroetan daudenak. Eguneko arretaz eta etxebizitzetako arretaz gain, Gautenak programa zabalak ditu aisialdirako, denbora librerako, hezkuntzarako, diagnostikorako, tratamendurako eta familiei laguntza emateko.

AZPIEGITURAK

2018ko uztailean, Azpeitiko Udalak Loiolabide 65-67, 75-77 eta 81-83 etxe-atarien lokalen hogei urterako lagapena onartu zuen udalbatzan. Lokal horietan Gautena Autismoaren nahasmena duten pertsonen familien Elkartearen hainbat zerbitzu jartzeko egokitzapenak egiten hasi ziren 2019. urteko azaroan.

16 lanpostu

Autismoaren espektroko nahastea duten pertsonen zaintzarako 16 lanpostu sortu dira Gautenak kudeatuko duen Olatzondo zentroan.

Gizarte beharrak

Loiolabiden hiru zerbitzu eskaintzeko aurreikuspena egin zen, zehazki. Hasieran, eguneko zentroa eta alojamendua eskaintzeko asmoa zuen Gautenak, baina Udaletik baloraziorako eta estimulaziorako zentroa jartzeko eskaintza egin zitzaion, eskaintza borobilagoa egin asmoz.

Loiolabideko 65-67 portalen azpian, 500 metro koadroko eremuan, eguneko zentroa jarri da. 81-83 etxe-atarietan, 500 metro koadro inguruko beste eremuan, alojamendurako eskaintza egokituko da, eta 75-77 portaletan 224 metro koadroko lokalean, baloraziorako eta estimulaziorako gurea egiteko lekua utzi zaio. Azken eremu hori, oraingoz, ez da abian jarriko.

Eguneko zentroan bi taldetan banatuta izango dira; alde batetik, 14 lagun autonomoenak, lau hezitzaileekin. Eta lau pertsonako beste talde bat hezitzaile batekin. Beraz, lau laguneko hezitzaile baten ratio izango dute beti zerbitzuan. Eguneko zentroak, informatika gela, garbiketa gela, sukaldea, egongela, tailerretarako bi gela.... ditu, egunean zehar bertara joaten diren pertsonen nahien eta beharren araberrako tailer eta heziketa gauzatzeko.

Goizeko 09:00ak aldetik 16:30 aldera astelehene-tik ostiralera izango da irekita eguneko zentroa. Ordutegi horretatik kanpo, azpiegiturak erabilera publikoa izango du; hau da, herritarren erabilerarako irekia izango da.

Eremu berean, metro batzuetara, 14 pertsona bizi dira, bi etxebizitzetan. Etxebizitza bakoitzak, logela indibiduala gain, sukaldea, egongela eta komunak dituzte.

“Denontzako Azpeitia eraikitzeko bidean, behar bereziak dituzten herritarrak eta familiak bertan zainduak izateko aukera eskaintzea garrantzitsua da” Nagore Alkorta



Udalak utzitako lokaletan eraiki da Gautenaren zentroa. Bertan 14 pertsonentzako etxebizitzak eta eguneko zentroa dagoeneko abian dira.

ZER DA GAUTENA?

Gautena Autismoaren nahasmena duten pertsonen familieb elkartea da. 1978an sortu zen eta, hasieratik, zerbitzu publikoa izan zedin egin du lan. Horretarako administratzi publiko eskudunen adostasuna bilatu du proposatu izan dituen proiektu guztietan. Unean uneko adostasun zientifikoa hartu izan ditu oinarri bere lanerako.

Hasieratik egin zituen proposamenak era baikorrean jaso zituen Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak, Gizarte Zerbitzu, Hezkuntza eta Osasunaren alorretatik pixkanaka, ikuspuntu ekonomikotik eskaintzen ziren zerbitzu espezializatuen funtzionamendua lagunduz eta sendotuz joan baita.

Gaur egun, honako zerbitzu hauek kudeatzen ditu: Diagnostikoa eta tratamendua, eguneko arreta, etxebizitzak, aldi baterako egonaldiak, aisia eta denbora libre eta familientzako laguntza. Zerbitzu horiek Gipuzkoako 900 famili baino gehiagoari eskaintzen zaizkie, eta horretarako, 230 profesional osaturiko ekipoa dute.



Iñaki Garcia

30 urte inguru daramatza Gautenan lanean, eta bera izango da Azpeitiko azpiegituretako koordinatzailea. Berarekin batera, beste hamasei profesionalek egingo dute bertan lan; horietatik hamar baino gehiago Azpeitia edo ingurukoak izango dira. Beraz, zaintzarako zerbitzu horren bidez, hamasei lanpostu berri sortu dira herrian: “Guretzat erronka handia da Azpeitian azpiegitura hauek irekitzea. Zorionez, hona bizitzera etorri diren pertsonak aurretik gure zerbitzuetan daudenak dira, eta ezagutzen ditugu. Alde horretatik lasai gaude, baina azpiegitura berriak dira, lan talde berria da... pixkanaka joango gara erritmoa hartzen”.

Gautenak, 21 urte azpikoentzako gela integratuak, eguneko zentroak eta etxebizitzak eskaintzen ditu, besteak beste autismoaren espektroa duten pertsonentzako. Zerbitzu gehienak, gela integratuak salbu, Donostia edo inguruan eskaini izan ditu orain artean. Zehazki, eguneko zentro guztiak Donostialdean dituzte, eta 6 etxebizitzetatik 5 ere bai, bestea Urnietan. Beraz, Azpeitian eguneko zentroa eta etxebizitzak abian jartzea erronka handia da elkartearentzat. Erronkari aurre egiteko gogoz eta ilusioz dago Garcia: “Orain arteko harrera oso ona eta ederra izan da, denek esku zabalik hartu gaituzte, eta pixkanaka-pixkanaka herrian integratzen joango gara. Hona bizitzera etorri direnak beren gogo eta nahien arabera, herriko dinamiketan integrazeko zubiak eraikiko ditugu”.



SOS Arrazakeriak bere zerbitzua eskaintzen du astero, Azpeitian

Azpeitiko Udalaren eta SOS Arrazakeriaren elkarlanaren baitan, munduko txoko ezberdinetatik etorritako azpeitiarrei informazioa, aholkuraritza eta laguntza juridikoa eskaintzen zaie Baigerako hirugarren solairuan.

1.433 atzerritar daude gutxi gorabehera, gaur egun, Azpeitian, eta horiei beren oinarritzko eskubideak bermatu eta hainbat tramite eta eskaerarekin laguntzeko zerbitzua eskaintzen du duela zenbait astetatik SOS Arrazakeriak. Hala ere, laguntza zehatza emango bada ere, oinarrian pertsona horiek Azpeitian integratzea izango da helburua.

Bizileku eta lanerako baimena, herritartasun ziurtagiria, osasun zerbitzuetarako sarbidea, doako zerbitzu juridikoak... edo bestelako hainbat tramite eta beharri erantzuteko laguntza, aholkularitza eta informazio eskaintzen dira zerbitzuaren bidez.

“Azpeitia gero eta anitzagoa da. Eta aniztasun horrek, behar berriak ere sortu ditu. Hala, Gizarte Zerbitzuetan hainbat kontutarako laguntza espezifiko baten beharra detektatu zen. Horri erantzunez jarri dugu abian zerbitzu berria”, adierazi du Nagore Alkorta alkateak. Zerbitzuak, herritarren bizi kalitatean eragin zuzena izango duela ere nabarmendu du: “Laguntza horren bidez, herritarren oinarritzko eskubideak bermatzeko egingo dugu lan. Eta herritarren eskubideak bermatzean, bere bizi kalitatean, zein egoera emozional eta fisikoan ere eragin zuzena izango du”.

OSTIRALERO, BAIGERAN

Baigerako (Enparan, 6) hirugarren solairuan, ostiraleko eskaintzen da zerbitzua, 10:00etatik 14:00etara bitartean. Koontsultaren bat egin nahi duten herritarrek aurrezhitza hartu beharko dute. Horretarako, 943-245626 edo 943-245627 telefono zenbakietara deitu daiteke.



**Astelehen eta asteazken
goizetan, Baigera I-eko
hirugarren solairuan izango
da Gipuzkoako Minbiziaren
Aurkako elkarte bere
zerbitzua herritarrei
eskaintzen**

Gipuzkoako Minbiziaren aurkako elkarteak egoitza berria du Azpeitian

Azpeitiko Udalak eta Gipuzkoako Minbiziaren Aurkako Elkartearen artean sinatutako elkarlanerako hitzarmenaren baitan, besteak beste, elkarteak astelehen eta asteazkenetan bere zerbitzua eskainiko du Baigerako hirugarren solairuan.

Azpeitiko Udalak eta Gipuzkoako Minbiziaren Aurkako Elkarteak elkarlanerako hitzarmena sinatu dute. Horri esker, minbizia duten paziente eta senideek elkarteak dohainik eskaintzen dituen zerbitzuak jaso ahal izango dituzte herrian.

Horretarako, Azpeitiko Udalak Baigera eraikineko hirugarren solairuko bulegoetako bat utziko dio, bi urterako, beste urtebetez luzatze-ko aukerarekin. Bertan izango dira elkarteko kideak astelehen eta asteazken goizetan.

Minbiziaren eragina murriztu eta herritarren bizi kalitatea hobetze da elkartearen helburu nagusia. Horretarako elkarteak boluntario bila dabil egoitza berrian laguntzeko.

Nagore Alkorta Azpeitiko alkateak, elkarteak zoriondu eta eskertzeaz gain, zerbitzuaren garrantzia azpimarratu du: "Ezinbesteko lana da elkarteak egiten duena. Zoritxarrez, minbizia asko zabaldua dagoen gaixotasuna da, eta Azpeitiko Udalaren helburua, okerren pasatzen ari diren horiek babestu eta horien bizi kalitatea hobetzea da". Elkarteak eskuzabalik hartzen duela herriak gaineratu du, eta horrelako zerbitzuak herrian bertan izateak paziente, senide eta herri osoari onura besterik ez diola egiten ere azaldu du Juan Ormazabal, AECC Gipuzkoako Minbiziaren Aurkako Elkarteko presidentearen hitzetan: "Eskerrak eman nahi dizkiogu Azpeitiko Udalarri eskualdeko pertsona gehiagorengatik. Gure helburua gaixo eta senidengatik hurbil egotea da, gure zerbitzuak doan eskainiz".



Etxe tutelatuak; adinekoentzako zerbitzuak indartzeko azpiegitura

Azpeitian, lehen aldiz etxe tutelatuen zerbitzua eskaintzeko prozesua aurrera doa. 12 etxebizitza eraikiko dira elizkalean; 8 logela batekoak eta 4 bi logelakoak. Adinekoen beharren inguruan egindako azterketak aintzat hartuta egingo dira.

Azpeitiko Udalak adineko herritarrei eskaintzen zaizkien zerbitzuak indartu eta behar berriei erantzuteko asmoz, etxe tutelatuak egitea erabaki eta prozesua abiatu du. Elizkalean egingo dira 12 etxebizitza eta adinekoiei zerbitzu integralagoa ematea du helburu. Dagoeneko proiektua egina du, eta etxebizitzak eraikitzeko lehiaketa publikoa ere abian du.

Mendekotasunik ez edo mendekotasun oso txikia izanik beren egunerokoari aurre egiteko zailtasunen bat duten adinekoiei zuzenduriko zerbitzua eskainiko da etxebizitza horien bidez. Etxebizitza horietan erabiltzaile bakoitzaren beharretara egokitutako zerbitzua eskainiko zaie. 12 etxebizitza eraikiko dira;

8 logela batekoak izango dira eta 4 bi logelakoak. Sukalde, kumun eta egongela eta logela izango du etxebizitza bakoitzak, baina horretaz gain, erabiltzaileak elkartzeko gune komunak ere eskainiko ditu.

Udaletik zuzenean eskaintzen diren zerbitzuak (etxez etxeko laguntza, eguneko unitatea...) osatzera bideratuko dira etxe tutelatuak. "Gaur egun beren etxebizitzan, hainbat arrazoi medio, egunerokoa aurrera eramateko zailtasunak dituzten pertsonentzat izango dira. Irisgarritasun edo mugikortasun arazoak, behar asistentzialak edo bakardadea

12 etxe tutelatu

Elizkalean 12 etxebizitza tutelatu eraikiko dira; zortzi logela bakarrekoak eta lau bi logelakoak.

duten pertsonentzat izango dira etxebizitza horiek, besteak beste. Etxebizitza horiek bizi kalitatea hobetu eta bizitzeko beste modu bat eskainiko die adinekoei”, zehaztu du.

Azpeitiko Udalak 2031ra begira, SIIS ikerketa zentroarekin elkarlanean, hainbat ikerketa egin zituen iaz. Ikerketa horietan demografiaren bilakaeraz gain, gizarte zerbitzu desberdinen etorkizuneko estimazioa ere egin da. Datu horiek aintzat hartuta, udal gizarte zerbitzuetatik adinekoei eskaintzen zaizkien zerbitzuen inguruko azterketa sakonak egin ditu udalak, etorkizunean zein zerbitzu beharko diren jakin eta behar berri horiei erantzuten gaurtik hasteko: “Azpeitian adinekoentzako zerbitzu berri bat jarriko du abian udalak: adinekoen beharrei erantzuteko etxe tutelatuetatik eraikiko ditugu, hain zuzen. Uste dugu zerbitzu pauso garrantzitsua dela herrian, azken finean adinekoen bizi kalitatea eta ongizatea helburu duen zerbitzua izango delako. Prebentzioan eskuhartzeko modu egokia dela uste dugu”, adierazi du Alkortak.

PROIEKTUA, MARTXAN

Etxebizitzak eraiki ahal izateko finantziazioa lotua du dagoeneko udalak eta proiektua ere egina du eta lehiaketa publikoa ere jarria du abian. Dena ondo bidean, 2022. urtearen amaierarako etxebizitzak prest izango dira herritarrek artatzeko. Horrekin batera, Azpeitiko Udala etxeen inguruko arautegia osatzeko aurrelanak ere egiten ari da, besteak beste funtzionamendua eta sarbide baldintzak zehazteko.



IKERKETAREN ONDORIO NAGUSIAK

1. Biztanleriaren zahartzea emango da orohar
2. Bereziki 75-80 urtetik gorakoen igoera izango da nabarmena; %40 haziko da.
3. 65 urtetik gorako herritarrek %27,3 haziko dira.
4. Gainontzeko populazioaren igoera %7,5a izango da.
5. Herritar oso zaharren tramoak haziko dira
6. 2031-n 65 urtetik gorako 850 adineko gehiago izango dira
7. Menpekotasuna duten pertsonak %34 gehiago izango dira; guztira 175 herritar.
8. 65-74 urte artean desgaitasunaren prebalentzia jaitsi egingo da.
9. Mendekotasun egoerak geroz eta adin zaharragoetan emango dira.
10. 80 urtetik gorakoetan mendekotasun egoera arinak handituko dira.
11. Mendekotasuna adin oso altuetara atzeratuko da



Baigera I eta Baigera II-ko taberna-jatetxeen kudeaketa

Lehiaketa publikoa



Proposamenak
aurkezteko epea:
Abuztuak 9



Azpeitia
Denontzat